



Bidasoa-Txingudi  
Mugaz-gaindiko  
Partzuergoa

IRUN ⇄ HONDARRIBIA ⇄ HENDAYE

[www.irunhondarribiahendaye.com](http://www.irunhondarribiahendaye.com)



## NATUR IBILADI BIDE NAGUSIAK

### BIDASOA-TXINGUDIKO BADIAKO BIDEA



Bidasoa-Txingudiko Bidea, 2001. urtean inauguratutako kanpoaldeko ibilbidea da, Irun, Hondarribia eta Hendaiako udalerriak fisikoki lotzen dituena, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa egituratuz eta lurralde-nortasunaren euskarri komun gisa proiektatu zen. Bide honen helburu nagusia, publiko guztiarentzat erabilerrazak eta ulergarriak izango diren intereseko interpretazio-eduki guneen ibilbide bateratzaile bat eratzea da.

Guztira 14 kilometro dituen ibilbidea da, Hendaiako Abbadia Jauregi Behatokitik hasi eta Hondarribiko Higer Itsasargiraino, Irun erromatarra igaroz, itsasertza eta Bidasoa ibaiako erribera inguratuz, Txingudiko Badiako itsasoratzeraino iritsi arte. Ibilbide osoan, 120 seinale daude, 45 puntu estrategikoetan banatutakoak, gure ondare natural, kultural eta historikoari buruzko informazio baliotsua ematen dutenak, bai bertako herritarrei, bai bisitatzen gaituzten pertsoneri.

Badiako bideko seinale guztiak berriki berriak izan dira, Irun, Hondarribia eta Hendaiako udalen elkarlanaren bidez eta Bidasoa-Txingudi Mugaz-Gaindiko Partzuergoaren koordinaziopean. Laster, eduki berriak sortuko dira, informazioa modu irisgarriagoan emanez, aro digital berrietara egokitutako tresnak erabiliz.

Badiako Bideko seinale berriak, mugaz-gaindiko elkarlanaren sustapenaren aldeko aurrerapauso esanguratsua da, mantentze- eta eguneratze-lanen beharri modu erakargarri eta abegitsu erantzunez, eta gure ingurune ederraz gozatzeko aukera emanez historiaz eta naturaz beteriko ibilbide bati esker.

Bide hau beste mendi-ibilbide garrantzitsu batzuetako bihotza eta elkargunea da, Irun aldetik (Behobia auzoa), Hondarribiatik (Higer lurmuturra) eta Hendaiatik (Abbadia eremua) lotuz.

## IRUN BIDEZ KONEXIOA BIDASOA IBAIAREN BIDE BERDEA



Bidasoako Bide Berdeak, antzinako Txikito meatze-trenaren ibilbidea berreskuratzen du. Tren horrek Elizondo (Nafarroa) eta Irun (Gipuzkoa) lotzen zituen, eta Bidasoa ibaiaren ertzak jarraitzen zituen hein handi batean, hortik bere izena. Guztizko 39 kilometroko distantzia eta erraz gainditzeko moduko 83 metroko garaiera zuen

Ibilbide hau bizikletaz egin dezakete kirolariak diren pertsonak 3 ordu eta erdi inguruko denboran. Herriz herrikoko zati laburragotan ere egin daiteke, ingurune lasai eta amesgarrietako flora eta fauna behatu ahal izateko.

Proiektu hau, EDERBIDEA Europako lankidetzaren proiektuaren esparruan gaitu zen non, Nafarroako, Gipuzkoako eta Atlantiar Pirinioetako 12 bazkidek indarrak batu zituzten bizikletaren erabilpena sustatzeko eta garraiobide arin honen erabiltzaileentzat egokitutako ibilbideak sortuz. Europako bidegorri sareko Eurovélo sarearen 1. Ibilbidearen parte ere bada

Gure mugaz gaindiko lurraldea Endarlatsatik Behobiara gurutzatzen duen zatian, Bidasoa ibaia igaro da, ertzaren alde batean Irun eta ertzaren beste aldean Biriatu duela, eta Txingudiko badiak isurtzen da, Hondarribiko lurretan, Kantauri itsasora (Gaskoinako golgora).

Bideak edertasun natural handiko inguruneak zeharkatzen ditu, errepide zati batzuk eta lur trinkoko beste zati batzuk tartean. Bidegurutzak delikatu batzuk ditu, baita ibilgailu motordunekin partekatutako zirkulazio eskaseko beste tarte batzuk, egoki seinaleztatuta daudenak.

Honela, Bidasoako Bide Berdeak, Txingudiko Badiako bidearekin lotzen da Behobia auzoan, nazioarteko zubiaren ondoan, bizikletan edo oinez egiteko ibilbideen luzaera handituz ta gure eskura ditugun ibaiaren paisaia ederrez gozatzeko aukera emanez.

Familian lasai gozatzeko abentura bikaina da, garai batean trenbideak igarotzen zituen tunelak zeharkatzea bereziki interesgarria suertatuz.

## HONDARRIBIA BIDEZ KONEKZIOA TALAIA BIDEKKA JAIZKIBEL MENDIAN



Hondarribiko arrantza-kaitik abiatuta Higerreko itsasargiraino igo daiteke. Han hasten da Talaia bidea, GR121 seinalea duena, Hendaia eta Bidarte arteko euskal eta frantziar kostaldeko ibilbidea lotzen duena, Bidasoa-Txingudiko bidearekin bat egiten duena.

Ibilbide honek Jaizkibel mendiko itsasaldeko hegala jarraitzen du, olatuek talka egiten duten itsaslabar garaiak inguratuz, 21 kilometroko distantziarekin eta 780 metroko desnibelarekin, Hondarribitik Pasaiaraino.

Zeharkatzen diren paisaiak oso ederrak dira, eta ez da zaila Jaizkibel mendiko belardietan bazkatzen ari diren animaliekin gurutzatzea eta zeruan itsas hegaztien hegaldi alaia ikustea, ibilbide osoan kala ederrak begiztatzen ditugula.

Natur-, abenturazale edo besterik gabe hiritik urundu eta lasai paseatzea maite dutenek, edo argazkilaritza, ornitologia edo geologia gustuko dutenek, ibilbide honek espektatiba guztiak beteko ditu.

Familian egiteko moduko ibilbidea da, hasieratik, bidezidorreko bi aldeak egiteko aukera ematen duena eta oinez hastapeneko puntura itzultzeko aukera eman edo, abenturazale eta motibatuentzat, ibilbide osoa egun oso batean egitekoa. Horretarako, gomendagarria da egun osorako ur nahiko eramatea eta oinetako egokiak janztea, baita zintzilik dauden pasabideetan kontuz ibiltzea, haize bortitzak direnean.

Ibilbide osoa egin nahi dutenentzat, autoa Hondarribiko Higer itsasargian dagoen aparkalekuetan utzi daiteke, ibilbide hasieran, eta autobusez egin Hondarribiara itzulera Ramon Iribarren (Lurgorri) Pasealekuraino, E25 zenbakia hartuta.

Gainera, Higer itsasargitik, eguraldi ona eginez gero, Donibane Lohizuneko mutur urrunena ikusten ahal da, baita Miarizekoa ere, eta handik abiatzen da baita ere, Pirinioak hegoaldeetik zeharkatzen dituen GR11 oinezko bidezidorra, Kataluniako Creus lurmuturreraino iristen dena.

## HENDAIA BIDEZ KONEKZIOA EUSKAL KOSTALDEKO ITSASERTZEKO BIDEXKA



Itsasertzeko bidea Iparraldeko Euskal Kostaldeko mendi ibilbide aipagarria da, Hendaia Abadiako eremuetan Txingudiko Badia, Talaia bidearekin jarraitzen duena, Bidarte eta Pasaia arteko mugaz-gaundiko ibilbidea osatuz.

Frantses aldeko ibilbideak gutxi gora behera 3 orduko iraupena dauka, 292 metroko desnibelarekin. Familian etapak egin daiteke, gelditu nahi izatean itzulera eramango zaituen garraio publiko zerbitzuen informazioa jasota aldez-aurretik.

Pirinioetako mendikatera eta Atlantiar Ozeanora dituen bistekin, ibilbide honek paisaia ederrak zeharkatzen ditu, Bidarte, Getari, Donibane Lohizune, Ziburu eta Hendaia osoan zehar, bertako itsaslabar malkartsuetan bidea eginez.

Lurraren hauskortasun geologikoa dela eta, gaur egun ez dago bidezidor guztiak oinez egiteko aukerarik, esaterako, Ziburun dagoen Sokoako hondartzatik Hendaia erlaitzean dagoen Asporosttipi Etxera Txik-Txak sareko 39 zenbaki dun autobusa hartu beharko dugu, ibilbide guztia osatu ahal izateko.

Distantzia eta zuhurtziarekin, euskal erlaitzaren itsaslabarrak ikusten ahal dira "Deux Jumeaux" arroka bikietaraino, dinosauroen garaitik gure lurraren eboluzioa transkribatzen duten metatutako harkaitz egiturekin. Abbadiako Domeinuan gelditzeko aukera ona ere bada, handik paseatzeko edo Zientzien Akademiaren jabegoa den Behatoki-Jauregia bisitatuz, munduan harribitxia den arkitektura berezi eta bakar honetan.

Leku batzuetan, eguna oskarbi denean, prismatiko on batzuk erabilita, Euskal Kostaldearen hegoaldean, Gipuzkoako harkaitz ospetsuenak ikusi ahal izango dituzu urrunean, bereziki ezaguna, Getariako "arratoia" izena hartzen duena.

Hendaia hondartzan, halaber, bizikletaz egiteko mendateen ibilbidea hasten da baita oinez egiteko GR10 mendi ibilbidea ere; Pirinioren iparraldea zeharkatzen dute biek, Mediterraneo itsasora iritsi arte.



## KONPOSTELAKO DONE JAKUE BIDEA



Santiagoko nazioarteko zubian bi ibilbide elkartzen dira, eta Donejakue bideko erromesen sarearen barruan daude. Bidasoko Interpretazio Zentroan, aduana zaharraren eraikinean, Avenida zubiaren ondoan, informazio gehiago dago haiei buruz, eta informazio osatuagoa, berriz, Irungo Lesaka kaleko erromesen aterpetxean.

Kostaldeko Bidea, Iparraldekoa ere esaten zaio, Bide Frantsesa bezain zaharra da. Erdi Aroan, Europako errege gehienek Santiago de Compostelara joateko erabili ohi zuten. Paisaiagatik, beti itsasotik hurbil, aukera oso berezia da, aterpetxeak ere badaude ibilbide osoan eta oso ondo seinaleztatuta dago.

Barneko Euskal Bidea –Baionako, San Adriango tuneleko edo, besterik gabe, Barnealdeko ere esaten zaio– Done Jakueren bidean funtsezko ardatza ez ezik, erromatarren garaian Irundik Penintsularen erdialdera sartzeko atea ere izan da.

Bi kasuetan, bidea Baionatik eta Donibane Lohizunetik sartzten da Gipuzkoan, Hendaia zeharkatuz Orioko errepidetik eta Enperadorearen bulebarretik. Bi aldaerek trazadura bera jarraitzen dute, Irungo San Juan Harri plazara iritsi arte. Han, bi ibilbidetan zatitzen da:

- ⇒ Kostaldeko Bidea Hondarribirantz doa, Kolon ibilbidetik barrena, Santiagotxo ermitaraino eta Guadalupeko santutegiraino Hondarribian, eta, ondoren, Donostiarantz jarraitzen du, Jaizkibel mendiaren magaletan barrena.
- ⇒ Barnealdeko bideak Oiartzunerantz jarraitzen du, Irungo Larreaundi eta Olaberria auzoetatik pasatuz, eta, gero, Aiako Harriko Parke Naturalean barneratzen da, Euskal Herriko landa-ingurunean ohikoak izaten diren pistak eta bidexkak zeharkatuz.

### INFORMAZIO GEHIAGO

[www.bidasoaturismo.com](http://www.bidasoaturismo.com)

[www.hendaye-tourisme.fr](http://www.hendaye-tourisme.fr)

[www.irun.org](http://www.irun.org)

[www.hondarribia.eus](http://www.hondarribia.eus)

[www.hendaye.fr](http://www.hendaye.fr)